

**6.10. Miren Agur Meabe
eta Eider Eibarren *Mila
magnolia lore*⁵²:
testu polifoniaren eta
ikusuntu gurutzaketaren
arteko bat egitea⁵³**

Mikel Ayerbe
(Euskal Herriko Unibertsitatea)

Laburpena: Miren Agur Meabe eta Eider Eibarren obren aurkezpenaren ondoren, *Mila magnolia lore* lanak eskaintzen dituen testu polifoniak eta ikuspuntu gurutzaketak duten garrantzia nabarmenduko da. Gainera, album ilustratuak bilduriko hainbat plano narratibo eta sekuentziales aurkezten dituzten askotariko irakurketa aukerak ere azpimarratuko dira.

Giltza-hitzak: album ilustratua, haur eta gazte literatura, literatur kritika.

52. Bilbao: Gero, 2010.

53. Lan hau Euskal Herriko Unibertsitateak lagunduriko EHU10/11 Ikerketa Proiektuan kokatzen da.

Abstract: After introducing Miren Agur Meabe and Eider Eibar's output, two writers of illustrative albums, the importance of the textual polyphony and the visual interaction that the album *Mila magnolia lore* offers are analyzed. Besides, the multiple reading suggestions this album offers by means of the different narrative and sequential planes are stressed.

Keywords: album, children and young adults' literature, literary criticism.

Miren Agur Meabe eta Eider Eibar: ongi moldaturiko tandemaren gurutzaketa

Miren Agur Meabek (Lekeitio, Bizkaia, 1962) poesiaren eta haur eta gazte literaturaren alorrean eman ditu literatura uzta arrakastatsuenak, nahiz eta letren eremuan 1986. urtean egin zuen agerraldia *Uneka... gaba* ipuin bildumarekin. 1990.ean poesiara jauzi egin eta Lasarte-Oria udaleko saria jaso zuen *Oi, hondarrezko emakaitz!* poemategiarekin (*Idatz & Mintz* aldizkariak argitaratu zuen, 1999an). 1997an Imajina ezazu Euskadi saria eman zioten *Ohar orokorrak* poesia liburuagatik. Aipaturiko bi lan horietako poema esanguratsuenak berreskuratu eta *Azalaren kodea* (Susa, 2000) poema bilduma laudatua eman zuen argitara (Susa, 2000). Urtebete beranduago Kritika saria jaso zuen *Azalaren kodea* poemategiagatik. Egilearen hitzak hona bilduz: "liburuan zehar, adieraztea nahikoa ez dela azpimarratzen da etengabe... komunikazio absolutua ez da posible". Horregatik, agian, komunikazio kode berri baten bilaketa eta aldarria eskaintzen du bere poemetan (Askoren artean, 2005).

Iaz kaleraturiko *Bitsa eskuetan* da poesiaren generoan eginiko azken urratsa. Hamar urte iragan dira *Azalaren kodea* liburutik eta egileak liburu aurkezpenean erabilitako hitzak hona ekarriz, oraingoan beste "leku-denbora" eta beste "bizi-parametro batzuetatik"

abiaturiko emaitza poetikoa eskaintzen da, adierazmolde diferente bat “ni”-an oinarrituriko “poesia sentsitiboaren” garapenean.

Miren Agur Meabek Irakasle Eskolan ikasi zuen Giza Zientzietan espezializatuz, eta Euskal Filologia egin zuen ondoren. Bilboko ikas-tola batean irakasle gisa aritu ostean, 1990 urteaz geroztik oraintsura arte, argitalpen zuzendaritzan eta kudeaketan lan egiten du Giltza-Edebé argitaletxean. Hasiera batean, Meabe lan arrazoiengatik hurbildu bazen ere haur eta gazte literaturaren eremura, berehala beste urrats bat eman eta arlo horretan ere bide interesgarria urratu eta ale nabarmenak burutu ditu. Gazte literaturan egindako estrainaldiarekin 2002an Haur eta Gazte Literaturako Euskadi saria irabazi zuen neska gaztea den protagonistaren ahotsa nabarmentzen den *Itsaslabarreko etxea* (Aizkorri, 2001) liburuarekin. Era berean, gerra zibilaren inguruko gertaerei heldu zion mutil gazte baten ahotsean barneratuz *Urte bete itsasargian* (Elkar, 2006) lanean, zeinarekin ere sari bera eskuratu zuen 2007an. Gazte literaturaren baitan ahotsen eta bestelako formatuen esperimentazioaren bidetik *Zer da, ba, maitasuna?* (Elkar, 2008) kaleratu zuen eta baita haur literaturaren alorrean bestelako lanak argitaratu ere. Besteak beste, *Nola zuzendu andereño gaizto bat* (Giltza, 2003), *Etxe bitan bizi naiz, eta zer?* (Elkarlanean, 2003), *Olatu guztien gainetik* (Ibaizabal, 2009), eta oraingoz azken argitalpena osatzen duen *Errepidea* (Erein, 2010). Horien artean, Eider Eibar ilustratzailearekin elkarlanean hiru lan plazaratu ditu: *Supositorioak otsoarentzat* (Giltza, 2006), *Izar bat zopan* (Giltza, 2008) eta *Mila magnolia lore* (Gero-Mensajero, 2010).

Eider Eibar (Zornotza, Bizkaia, 1980) Arte Ederretan lizentziatua da Euskal Herriko Unibertsitatean eta animazio ikasketak eginak ditu Bartzelonako Pompeu Fabra unibertsitatean. 2000. urtean hasi zen literatura liburuak ilustratzen eta harrez gero hogeita hamar literatur liburu baino gehiago ilustratu ditu. Horien artean, *Egizu lo* (askoren artean, Elkar, 2005), *Kea airean bezala* (Imanol Azkue, Elkar, 2006), *Klara zirimola* (Braulio Llamero, Erein, 2008) eta *Anekdotak* (Ruben Ruiz, Pamiela, 2008), batzuk aipatzearren. Azken lan horretako irudiekin 2009. urtean Euskadi Ilustrazio sarian finalista izan

zen, baina azkenean testuaren egile Ruben Ruizek soilik eskuratu zuen 2009ko Haur eta Gazte Literaturako Euskadi saria. Egun, Eider Eibarrek, Larraitz Zuazorekin batera, *Dirudi* diseinu eta animazio tailerra sortu berri du.

Aurrez aipaturiko *Supositorioak otsoarentzat* lana da Meabe eta Eibarren artean eginiko lehen album ilustratua. Umetxo bat gaixorik dago eta supositorioa hartzea edo ez hartzea dira bere aukerak. Hortik aurrera, aukera binarioen arteko kontakizuna harilkatzen da, beti ere aukera bakoitzak dakarren ondorio kontrajarriak agerian utziz. Kausa-ondorio jolas horretan, haur literatur tradizioko otsoaren edo etxerako bidea galtzearen iruditegiak ere bere garrantzia du. Albumerako eginiko Eibarren irudiak zinez dira aipagarriak, ilustratzaileak ohi duen bezala, testuak eskaintzen duen irakurketa hertsitik haratago, hitzen interpretazioa irekian oinarrituriko irudiak eskaini eta testuan ez dauden xehetasunak eransten dituelako bere ilustrazioetan.

Meabe-Eibar tandemaren beste emaitza bat *Izar bat zopan* deituriko liburu ilustratua dugu. Oro har, neskato protagonistak gidatzen duen testua nagusitzen bada ere, jadanik Meabek testuaren baitan bi plano bereiziko ditu, kapitulu bakoitzaren amaieran ahozkotasunera edo herri poesiara hurbiltzen diren aleak gehituko dituelako. *Supositorioak otsoarentzat* albumaren ostean, aztergai dugun *Mila magnolia lore* da elkarrekin kaleratu duten album ilustratua.

***Mila magnolia lore*: itzulerarik gabeko bidaia edo bitakora-kaiera testamentu gisa**

Neskato bat ospitaleko ohean datza eta aita du uneoro aldamean. Protagonistak gaixotasun larri bat du eta nahiz eta ospitalean ingresaturik dagoen aurreneko aldia ez izan, tamalez hau izango da bere azkenengo aldia⁵⁴. Bitartean, ezinegona arintzeko, koaderno go-

54. Gaixotasuna edo heriotza bezalako gaiak jorratzen diren albumez aritzeko, ikus Javier García Sobrinoren(2006): “En una investigación que realicé hace seis años, titulada *Los valores en los libros infantiles desde 1975 a 1999*, comprobé que la

ria besterik ez du poemak idatzi eta marrazkiak egiteko. Leihotik magnolia zuhaitz bat ikusten da eta zuhaitza eta aita izango dira neskatoaren amaiera gazi-gozoaren testigu.

Kontaketa aurkezteko erabilitako alderdi formalari begiraturuz, liburuak eskema errepikakor bati jarraitzen dio: ospitaleko eszena bakoitzaren ilustrazioek orrialde bikoitza bereganatzen dute. Ezkerreko orrialdean narratzaileak gertakariak azaltzen dituen bitartean, eskuineko orrialdean neskatoaren koadernoko orrialde bat biltzen da, orrialde bakoitzean poema bat bere marrazkiekin.

Istorio gogor eta tragikoaren kontaketa heldu diote Meabek eta Eibarrek *Mila magnolia lore* albumean eta horrelako kontaktuzun batek interesgarri izateko beharrezkoa duen bezala, kontamolde bereziaz baliatu dira errazkeria eta erosotasuna saihestuz. Album ilustratuen definizioei jarraituz (Duran, 2009: 202), testuaren eta irudien arteko ezkontzatik sortzen da *Mila magnolia lore* liburuaren aberastasuna ere. Baina era berean, *Mila magnolia lore* albumeko bi planoetako bakoitza biderkatu egiten dela jabetuko gara. Izan ere, testua edo hitzak bi modutara biltzen dira liburuan, eta berdina gertatzen da ilustrazioei dagokionez ere.

Testu polifonia

Miren Agur Meabek argitaratu berri duen *Bitsa eskuetan* poesia liburua “Definizioa” poemak zabaltzen du eta lehen bertso-lerroan “Emakume kaierduna naiz” diosku poetak. Deklarazio autopoe-tikoa inondik ere, egile honen ibilbide literarioa aintzat hartzen badugu behintzat. *Mila magnolia lore* liburuan ere neskato protagonista koaderno bat du bertan idatzitako poema eta marrazkien

enfermedad estaba prácticamente ausente de los álbumes que se habían publicado en nuestro país en ese tiempo. Hoy la situación está más o menos igual”. Era berea, interesgarria litzateke artikuluan aipatzen diren lanen eta *Mila magnolia lore* lanaren arteko azterketa konparatua egitea, komunean aurkezten dituzten ezaugarriak abiapuntu hartuz.

bidez ospitalean bizitakoari buruz bere testigantza biltzeko. Beraz, testuaren azterketa koadernoaz kanpokoak eta barnekoak mugatuko du.

Koadernoaz kanpoko testuaren lehen plano orokorrean, neskatoren ospitaleko egunerokotasunaren errealitate gordina kontatzen digu narratzaileak, bigarren pertsona singular apostrofikoan, neskatari zuzenean hitz eginez. “Ospitalean zaude. Buruko mina eta sukarrak itzela zenituen bart. Horregatik ekarri zaitu aitak” esaldiek irekitzen dute narrazioa. Apostrofea entzulearen nahiz irakurlearen parte hartze emotiboa bultzatzeko erabiltzen da hizkuntzaren funtzio konatiboa eragiten duten elementuez baliatuz eta hartzaile testuan zuzenki barneratuz. Ahots narratibo honen jarduna apaindura gabekoa eta zuzena da, “erretorika gabekoa”, liburuaren aurkezpeneko egilearen hitzak baliatuz. Dena den, ospitaleko eszena narratibo bakoitzaren amaieran gogoetara gonbidatzen duen galdera erretoriko-metafisiko bat geldituko da airean, aurreneko orriko “Zenbat egun behar ote dituzu sendatzeko?” galderarekin hasi eta ondoren etorriko diren beste guztiekin batera: “Zer dela eta jasan behar duzu mina? Zertarako?” (8), “Nora zoaz orain?” azken galdera errebelatzaile arte.

Zehazki, neskatoari sortzen zaizkion galdera horiek, bi testu planoetan errepikatzen diren bestelako hitz klabe batzuekin batera, zubi-lana egingo dute koaderno gorriaren barruan aurkituko ditugun poema eta irudiekin. Ahots narratiboaren estilo zurrunari kontrajarriz, koadernoan ahots liriko, barnerakoi eta intimista gailentzen da, itxura batera poemek aurkezten duten xalotasunarekin batera. Horrela, aurreneko orriko galderaren nolabaiteko erantzuna koadernoaren baitako “Sukarra” poeman aurkituko dugu: “Thintzak kox-kox lorearen orrian / Euriak taup-taup zuhaitzaren sustraian / Zirimiria ari du nire bekokian” (4). Eskema narratibo hau orrialde bikoitz guztietan errepikatuko da, ezkerrean bigarren pertsonan zuzentzen den ahots narratiboa, beti ere galdera batekin amaituz; eta eskuinean, galderaren hariari tira eginez sorturiko poema lirikoak: “Tristura”, “Bidea”, “Beldurra” eta neskatoaren bestelako poema in-

timoak, azkenengo “Agurra” poemara arte: “Mila magnolia lore / mara-mara ari ziren bare. / Gero, mila malko naro. / Eta mila ele more.” (35).

Modu horretan, aipaturiko polifonia testualak hainbat irakurketa aukera irekitzen dizkio irakurleari: albumaren plano guztiak aintzat hartuz irakurketa osatua egin daiteke batetik; koadernoko poemak bata bestearen atzetik autonomoki irakur daitezke, istorio nagusia albo batean utziz; edo era berean, irakurleak poemak bazter utziz ahots narratiboaren kontakizunari soilik hel diezaioke.


Liburu berean prosa eta poesia batera aurkeztearena Miren Agur Meabek bere ibilbidean maiz erabili duen estrategia literarioa da. Aurrez aipaturiko *Izar bat zopan* lanean egin bezala, gazteei zuzenduriko *Zer da, ba, maitasuna?* liburuan are nabariagoa da mekanismo narratibo hau. Liburuan neska eta mutil baten arteko lehen maitasun istorioa kontaktzen da, modu zatikatuan, protagonista bakoitzak istorioaren bere ikuspegia aurkeztuko baitu kontaktaren norabidearen arabera. Horrela, liburua bi noranzkotan irakurtzean da, baina era berean, kontakizun bakoitzaren baitan prosa eta poesia nahastuko dira: neskatoak poesia idatziko zaleatasuna duelako eta mutikoak, aldiz, musika talde baterako abestiak idatziko dituelako. Hain zuzen, aurrerago aipaturiko “Definizioa” poemak liburu honetan du bere ernamuina, neskaren kontakizunean eskaintzen diren “Emakume kaierduna” eta “Ni ez naiz Wendy” poemen bat egitetik sortzen delako *Bitsa eskuetan* liburuko “Definizioa” poeman. Era berean, poemategiko horretako “Barazteko deia” poema ere aurrez *Zer da, ba, maitasuna?* horretan argitaratu zen.

Esan bezala, narrazioak aurkezturiko errealitateko gertaera objektiboekin batera, protagonista bakoitzak bere ikuspegi subjektiboa adierazten du koadernoan idatzitako poemen bidez, eta baliabide hau berrerabiltzen du aztergai dugun *Mila magnolia loren* ere. Pertsonaia kaierdunak oro. Kasu honetan, gainera, neskatoaren testigantza poetikoa biltzen duen koaderno gorria testamentu bihurtuko da, istorioaren amaieran neskatoa hil egiten den heinean.

Ikuspuntu gurutzaketa

Ilustrazioei dagokienez, era berean, koadernoz kanpoko irudiak eta kaiera gorri barrukoak bereizi, eta ezinbestean bi planoen artean harrigarriki sortzen diren interakzio ariketak azpimarratu behar dira. Izan ere, bi orrialdeak bereganatzen dituzten ilustrazioek, testuaren plano nagusian gertatu bezala, ospitaleko egonaldiko eszenak biltzen dituzte eta bestetik, koaderno barruko poemen inguruetan umearen eskuz eginiko marrazkiak ditugu. Dena den, hainbat elementu koadernotik eszena nagusira atera edo alderantziz, eszena nagusitik koadernora sartzen dira, aurrez testuko hainbat elementurekin gertatu bezala. Adibidez, “Sukarra” poemako ihintzak eszena nagusiko magnolia ere bustiko du, “Krispetak” poemako koadernoko krispetak eszena nagusian barreiatuko dira, “Arima”-ko kaiola bezala, eta “Poza I” eta “Poza II”-ko koadernoko pospoloaren argiak koadernoz kanpoko eszena iluna argituko du.

Eibarren estiloari jarraiki, ilustrazioak testuak eskainitako interpretaziotik abiatu eta irudi aberatsen bidez bestelako irakurketa aukera



bat eskaintzen dute, testuak dioena bere horretan irudikatzeari uko egin eta kontakizunari testuan zehazten ez diren xehetasunak irudietan txertatuz⁵⁵. Horrela, txoriek zeresan handia duten pasarteetan kasu, umearen ileak zozo beltzekin bat egingo du eta beranduagoko orrialdeko ilustrazioan, aldiz, txoriek ospa egin dutenean, umearen ileak ihes egindako txoriak gogora ekartzen dituen lumak bihurtuko dira. Esanguratsua da azken aurreko eszena nagusiko ilustrazioa ere, testuak ez baitu esplizituki umea hil dela argi eta garbi esaten, baina ilustrazio nagusia ongi behatuz gero, ohartzen gara leihora hurbildu den neskatoaren eskuak leihoko beira zeharkatzen duela magnoliaren lorea ukitzeko. Nolabait, ekinga irreal horrekin hurrengo orrialdean datorrena aurreratuz.

Bestalde, nabarmendu behar da aitaren eta bereziki umearen erre-presentazio irudiak aldatu egiten direla orrialdez orrialde⁵⁶. Horrela, eskanerraren pasarteetan umearen erre-presentazioak heldu bat gogorazten badu ere, orrialde batzuk beranduago hiru urteko umetxo gisa agertuko zaigu, aitarekin jolasean ari den pasarteetan. Hein batean, baliabide honekin neskatoaren barne sentipenen adierazpidea hitzez egin beharrean irudien bidez islatzen da.

Amaitzeko, garrantzitsua da aipaturiko testu polifoniaren eta ikuspuntu gurutzaketaren hartu-emanaz gain, bestelako elementuak bat egitetik eratorriko direla album ilustratu batek izan behar duen batasun kontzeptua zein *ahots narratibo* edo *albumaren fokalizazioa* (Zaparaín & González, 2010: 88). Batetik, gaiaren aukeraketa bera, gaixotasun sendakaitza duen neskatoaren bizitzako azken astearen kontakizuna; hainbat sinbolok albumean duten garrantzia ere aintzat hartu behar da, hala nola, magnoliak, txoriak eta orratzak kasu,

55. Silva-Díaz (2006): “Una de las características de los buenos álbumes infantiles es que texto e imagen se reparten la tarea de contar y se mantiene a salvo de peligros de redundancia”.

56. Colomer (2002, 30): “En los cuentos populares y la mayoría de libros infantiles, los personajes son de una determinada manera a lo largo de toda la historia. Pero en otros casos su caracterización se complica porque cambian durante el relato. La ilustración se hace cargo, también, de hacer notar al lector que el personaje no es estático, sino que evoluciona en el transcurso de la narración”.

umearen egoera animikoa islatzeko bestelako baliabide gisa; ahots narratibo zurrinari kontrajartzen zaizkion ilustrazio xamur eta hunkigarriak... Elementu guzti hauei obraren beraren ezaugarri formalen nolakotasuna gehitu behar zaie –tipografia, azala eta kontrazala zein bestelako xehetasunak–, azken batean, “liburuaren ulermenerako berebiziko esanahia baitu batasun integral horren baitan sekuentzia gisa elkarreragiten duten zati guztien bat egiteak” (Marantz, 1995). Baliabide hauek guztiak bat eginda album ilustratuan eskaintzeak haur eta gazte literaturaren mugak gainditzera darama *Mila magnolia lore*, edozein irakurlerentzat interesgarria den irakurketa proposamen gisa.



Aipaturiko bibliografía

- Askoren artean** (2005), *Poetikak & Poemak*, Donostia: Erein.
- Colomer**, Teresa (dir.) *et al.* (2002), *Siete llaves para valorar las historias infantiles*, Madrid: Fundación Germán Sánchez Ruipérez.
- Duran**, Teresa (2009), *Álbumes y otras lecturas. Análisis de los libros infantiles*, Barcelona: Octaedro.
- García Sobrino**, Javier (2006), “Todos los cuentos” en “El arte y el Álbum ilustrado” [monográfico], *Peonza*, nº 75/76, abril.
- Marantz**, Kenneth (1999), “Con estas luces” en *El libro-álbum. Invención y evolución de un género para niños*, Venezuela: Para-para-clave /Banco del libro.
- Silva-Díaz**, Cecilia (2006), “La función de la imagen en el álbum” en “El arte y el Álbum ilustrado” [monográfico], *Peonza*, nº 75/76, abril.
- Zaparaín**, Fernando & Luis Daniel **González** (2010), *Cruces de caminos. Álbumes ilustrados: construcción y lectura*, Valladolid: Universidad de Valladolid.